

A12 - Nolakoa da eraikin adimendun bat barrutik?

Bizi ezazu Galarreta Ekocampuseko esperientzia. Ezagutzea eraikin adimendun bat barrutik eta STEM profesional baten eskutik. Ulertzea prototipo bat eraikitzeko prozesuaren etapak eta gakoak.

Ikasurtea

**1. DBH, 2. DBH, 3. DBH
4. DBH**

**1. Batxilergoa
2. Batxilergoa**

Data

Adosteko

Lantzen diren irakasgaiak

**Kultura zientifikoa
Teknologia**

Jarduera mota

**Aldez aurreko prestakuntza
ikasgelan
Bisita erakundera**

Hizkuntza

Euskara

Irismen geografikoa

Gipuzkoa

Jarduera ematen duen erakundea

**Mondragon Goi Eskola Politekniko-
koa (Mondragon Unibertsitatea)**

Curriculumaren edukiak

Metodo zientifikoaren garapen-prozesuaren ezagutza.

Instalazio energetikoak gertutik ezagutzea.

Zer ikasten dute ikasleek?

Ezagutzea eraikin adimendun bat barrutik eta STEM profesional baten eskutik.

Ulertzea prototipo bat eraikitzeko prozesuaren etapak eta gakoak.

Garapena

1. ERRONKAREN AURKEZPENA Aurretiazko lana (gelan): irakasle-taldeak planteatutako gida-galderen bidez eta dibulgazio-materialaren laguntzarekin, ikasleak eskualdeko jasangarritasun eta eraikuntza jasangarriko garapen-proiektura hurbiltzen dira.

2. INSTALAZIOETARAKO BISITA: Ikasleek bisitatzen dute eraikin adimendun bat (MGEP) eta aditu batek eraikinaren jasangarritasunarekin lotutako gakoak azaltzen dizkie.

3. KONTZEPTUALIZAZIOA ETA PROTOTIPOAREN GARAPENA: Gelan, ikasleek proposamenak garatzen dituzte eta prototipoetan islatzen dituzte.

4. AURKEZPENAK: Ikasleek bere lanak aurkezten dituzte irakasleen aurrean. Horrez gain, adituen batzorde batek aurkeztutako proposamenaren gaineko feedback positiboa zein proposatzailea ematen die.

5. IKASLEEN BALORAZIOA: Ikasleek jarduerari buruz egiten duten balorazioa.